9.- En los procedimientos iniciados a solicitud de una persona interesada, para los que no se establezca específicamente otra cosa, y que tengan por objeto o se refieran a la reclamación de cantidades, el ejercicio de prerrogativas administrativas o a cualquier otra cuestión relativa de la ejecución, consumación o extinción de un contrato administrativo, una vez transcurrido el plazo previsto para su resolución sin haberse notificado ésta, la persona interesada podrá considerar desestimada su solicitud por silencio administrativo, sin perjuicio de la subsistencia de la obligación de resolver.

12.- ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

Kontratazio-organoaren ebazpenen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo sektore publikoaren araubide juridikoaren indarreko araudian eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako errekurtso arruntak jarri ahal izango dira.

12.- RÉGIMEN DE RECURSOS

Contra las resoluciones del órgano de contratación se podrán interponer los recursos ordinarios previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la regulación vigente del régimen jurídico del sector público, así como en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

II. KAPITULUA – KONTRATAZIOA

CAPÍTULO II – CONTRATACIÓN

13.- ESPEDIENTE MOTA ETA LIZITAZIO MODUA

1.- Kontratazio-espedientea baldintza-agiri honen azalean aurreikusitako prozeduraren eta izapidetzearen arabera egingo da.

13.- CLASE DE EXPEDIENTE Y FORMA DE LICITACIÓN

1.- El expediente de contratación se realiza por el procedimiento y la tramitación previstos en la portada del presente pliego.

2.- Aldaerak onartzen badira, lizitatzaileek beste aukera batzuk eskaini ahal izango dituzte, ezaugarrien taulako 12. apartatuan ezarritako moduan eta preskripzio tekniko zehatzen agirian ezarritako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin.

2.- En el supuesto de admisión de variantes, las licitadoras podrán ofertar alternativas en la forma establecida en el apartado 12 del cuadro de características y con los requisitos, modalidades y características técnicas fijadas en el pliego de prescripciones técnicas particulares.

3.- Espedientea presaz izapidetzeak ez du ekarriko lizitaziorako, esleipenerako eta formalizaziorako ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako arauen arabera.

3.- La tramitación urgente del expediente no implicará la reducción de los plazos establecidos para su licitación, adjudicación y formalización, conforme a las reglas establecidas en el artículo 119 y concordantes de la LCSP.

14.- PERTSONA NATURAL EDO JURIDIKO LIZITATZAILEAK

14.- PERSONAS NATURALES O JURÍDICAS LICITADORAS

1.- Administrazioarekin kontratuak egin ahal izango dituzte jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, kontratatzeko debekurik ez badute eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, edo, SPKLk hala eskatzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude, hori guztia ezaugarrien koadroaren 14. apartatuan ezarritakoaren arabera.

1.- Podrán contratar con la Administración las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en ninguna de las causas de prohibición de contratar, y acrediten su solvencia económica y financiera y técnica o profesional o, en los casos en que así lo exija la LCSP, se encuentren debidamente clasificadas, todo ello de acuerdo con lo establecido en el apartado 14 del cuadro de características.

Aplikatzekoa den araudiak hala zehazten duelako lizitatzaileari antolakuntzari, onuren xedeari, finantzaketa-sistemari edo bestelakoei lotutako baldintza jakin batzuk eskatzen bazaizkio adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko, hauek egiaztatu egin beharko ditu prozeduran parte hartzen duenean.

Cuando, por así determinarlo la normativa aplicable, se le requieran a la licitadora determinados requisitos relativos a su organización, destino de sus beneficios, sistema de financiación u otros para poder participar en el correspondiente procedimiento de adjudicación, deberá acreditarlos al concurrir en el mismo.

2.- Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debeku ezari buruzko aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarrak, eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta kontratua burutzen den unean iraun beharko dute.

2.- Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refiere el apartado anterior, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.

3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko eskatzen den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio, ezaugarrien taulako 14. apartatuaren arabera.

3.- Las licitadoras deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que constituyan el objeto del contrato de acuerdo con el apartado 14 del cuadro de características.

4.- Pertsona juridikoei beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan sartzen diren prestazioetarako kontratuak bakarrik esleitu ahal izango zaizkie.

4.- Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios.

5.- Administrazioak, halaber, aldi baterako eratutako enpresa-elkarteekin kontratuak egin ahal izango ditu, eta ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua bere alde esleitu arte.

5.- La Administración podrá, igualmente, contratar con uniones de empresas que se constituyan temporalmente al efecto, sin que sea necesaria la formalización de las mismas en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación del contrato a su favor.

Osaera aldatzen bada, edo kontratua formalizatu aurretik eta ondoren gertatzen diren aldaketa-kasuetan, SPKLren 69. artikuluaren 8. apartatuan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da. Horretarako, gertatu den gorabehera jakinarazi beharko zaio kontratazio-organoari.

En caso de alteración de su composición, así como en los supuestos de modificación que se produzcan antes y después de la formalización del contrato, se estará a lo dispuesto en el artículo 69, apartados 8 y siguientes de la LCSP. A estos efectos, se deberá comunicar al órgano de contratación la circunstancia que se hubiere producido.

6.- Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei eta Europar Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

6.- En relación con las empresas comunitarias o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo y empresas no comunitarias será de aplicación lo dispuesto en los artículos 67 y 68 de la LCSP.

7.- SPKLren 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza-agiri honen xede den kontratua ezin izango zaie adjudikatu lizitazioaren xede diren obrak zaintzea, gainbegiratzea, kontrolatzea eta zuzentzea xede duten zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresa berberei, ez eta horiekin

7.- De acuerdo con lo establecido en el artículo 70.2 de la LCSP el contrato objeto del presente pliego no podrá adjudicarse a las mismas empresas adjudicatarias de los contratos de servicios que tengan por objeto la vigilancia, supervisión, control y dirección de las obras objeto de la licitación, ni a las

lotutako enpresei ere, hau da, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuren batean daudenei.

empresas a éstas vinculadas, entendiéndose por tales las que se encuentran en alguno de los supuestos previstos en el artículo 42 del Código de Comercio.

14.1.- SEKTORE PUBLIKOKO LIZITATZAILEEN ETA ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTRO OFIZIALAREN INSKRIPZIOA

14.1.- INSCRIPCIÓN REGISTRO OFICIAL DE LICITADORES Y EMPRESAS CLASIFICADAS DEL SECTOR PÚBLICO

1.- SPKLren 159.4 artikuluaren arabera, prozedura sinplifikatuaren bidez egiten diren lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaile guztiek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute, eskaintzak aurkezteko epemugan, lehia mugatuta ez badago, betiere.

1.- De conformidad con el artículo 159.4 LCSP, todas las licitadoras que se presenten a licitaciones realizadas a través del procedimiento simplificado deberán estar inscritas en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, en la fecha final de presentación de ofertas, siempre que no se vea limitada la concurrencia.

2.- Ondorio horietarako, onargarritzat joko da, halaber, lizitatzailearen proposamena, baldin eta egiaztatzen badu dagokion erregistroan inskribatzeko eskabidea aurkeztu duela, horretarako nahitaezko dokumentazioarekin batera, baldin eta eskaera hori eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Egoera hori egiaztatzeko, eskabidea jaso izanaren agiria aurkeztu beharko da, dagokion erregistroak emana, bai eta erantzukizunpeko adierazpen bat ere, nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izana eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izana egiaztatzeko.

2.- A estos efectos, también se considerará admisible la proposición del licitador que acredite haber presentado la solicitud de inscripción en el correspondiente Registro junto con la documentación preceptiva para ello, siempre que tal solicitud sea de fecha anterior a la fecha final de presentación de las ofertas. La acreditación de esta circunstancia tendrá lugar mediante la aportación del acuse de recibo de la solicitud emitido por el correspondiente Registro y de una declaración responsable de haber aportado la documentación preceptiva y de no haber recibido requerimiento de subsanación.

15.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

15.- GARANTÍA PROVISIONAL

SPKLren 159. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lizitatzaileek ez dute behin-behineko bermerik eratu beharko.

De conformidad con lo previsto en el artículo 159 de la LCSP, no procederá la constitución de garantía provisional por parte de los licitadores.

16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

16.- PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

1.- Proposamenak Euskadiko Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bidez aurkeztuko dira

1.- Las proposiciones se presentarán a través de la Plataforma de Licitación Electrónica de Euskadi www.contratacion.euskadi.eus en el

(www.contratacion.euskadi.eus), ezaugarrien taulako 30. apartatuan adierazitako epean, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.- Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, horretarako, lizitazio publikoa egin arte isilpekoak direla bermatzen duten bitartekoak jarriko dira.

3.- Dokumentazioaren bidalketa, bai eta jakinarazpenak eta komunikazioak ere, baldintza-agiri honen I. eranskinean jasotakoaren arabera egingo dira.

plazo señalado en el apartado 30 del cuadro de características, a contar desde el día siguiente a la publicación en el perfil de contratante del anuncio de licitación.

2.- Las proposiciones serán secretas y, para ello, se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de la licitación pública.

3.- El envío de la documentación, así como las notificaciones y comunicaciones, se ajustarán a lo recogido en el Anexo I de este pliego.

16.1.- Proposamenen edukia

2.- Proposamenak ezaugarrien taulako 20. apartatuan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo haren ordezkariak, klausula honetan aurreikusitako xehetasunekin.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzaren barruan, fitxategi independente batean eta zenbakituta, edukia jasoko da.

16.1.- Contenido de las proposiciones

1.- Las proposiciones se presentarán en los archivos electrónicos que se indican en el apartado 20 del cuadro de características y con el detalle previsto en la presente cláusula, por la licitadora o persona que ostente su representación.

2.- En el interior de cada archivo electrónico se hará constar, en fichero independiente, su contenido, enunciado numéricamente.

16.1.1.- BAT ZENBAKIDUN artxibo elektronikoa: "BALIO-JUDIZIOEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

1.- Ezaugarrien koadroko 19. atalean aldez aurretik ebaluatu beharreko balio-judizio bidezko adjudikazio-irizpideak sartu badira, lizitatzaileak BAT zenbakidun artxibo elektronikoa aurkeztu beharko du, «BALIO-JUDIZIOEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA» izenburua duena, eta bertan eskatutako dokumentazioa jaso beharko du.

2.- Artxibo elektroniko horretan ez da inola ere sartu behar BI zenbakiko artxibo

16.1.1.- Archivo electrónico nº UNO: “DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A JUICIOS DE VALOR”

1.- Si en el apartado 19 del cuadro de características se han incluido criterios de adjudicación apreciables mediante juicio de valor que deban ser objeto de evaluación previa, la licitadora deberá aportar un archivo electrónico nº UNO con el título “DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR”, en el que incluya la documentación allí exigida.

2.- En ningún caso deberá incluirse en este archivo electrónico información propia del

elektronikoaren berezko informaziorik.

BI zenbakiko artxiboan aurkeztu behar den informazioa aurkeztuz gero, lizitatzailea prozeduratik kanpo geratuko da.

3.- Era berean, lizitatzaileak jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko datuak aurkeztu beharko ditu, I. eranskineko gehiagarriaren ereduaren arabera, eta, hala badagokio, preskripzio teknikoen agirian berariaz adierazten diren eta eskaintzak eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen dituela egiaztatzeko aukera ematen duten beste edozein agiri, baina baloratuko ez direnak,. BAT artxibo elektronikoan sartuko dira, artxibo hori aurkeztea nahitaezkoa bada, edo, bestela, BI artxibo elektronikoan.

16.1.2.- BI zenbakidun artxibo elektronikoa: "ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

1.- Artxibo elektroniko horretan, eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak (III. Eranskina) sartu beharko dira, eta baita erantzukizunpeko adierazpena, IV. eranskinaren arabera.

2.- Proposamenak III. eranskinean agertzen den eredura egokitu beharko dira, eta ez dira onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, baldin eta jasanarazi behar bada.

Eskaintza ekonomikoa eta artxibo elektroniko honetan dagoen gainerako dokumentazioa

archivo electrónico nº DOS.

En caso de presentar información que deba ir en el archivo nº DOS, la licitadora será excluida del procedimiento.

3.- Asimismo, la licitadora deberá presentar los datos a efectos de recibir notificaciones y comunicaciones, de acuerdo al modelo de la Adenda al Anexo I, y cualesquiera otros documentos que, en su caso, se indiquen expresamente en el pliego de prescripciones técnicas y que permitan verificar que la oferta cumple con las especificaciones técnicas requeridas, pero que no van a ser objeto de valoración. Se incluirán en el archivo electrónico nº UNO en el caso de que sea obligatoria la presentación de este archivo o, en caso contrario, en el archivo electrónico nº DOS.

16.1.2.- Archivo electrónico nº DOS: “OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS”

1.- En este archivo electrónico se deberán incluir la oferta económica y el resto de documentos a evaluar mediante la aplicación de fórmulas (Anexo III), así como la declaración responsable de acuerdo con el Anexo IV.

2.- Las proposiciones deberán ajustarse al modelo que figura en el Anexo III, no aceptándose aquellas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta. Las ofertas económicas de las licitadoras deberán indicar, como partida independiente, el importe del Impuesto sobre el Valor Añadido, caso de que deba ser repercutido.

Tanto la oferta económica como el resto de documentación contenida en este archivo

ezaugarrien taulako 19. apartatuan adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

electrónico serán evaluadas conforme a los criterios expresados en el apartado 19 del cuadro de características.

Horrez gain, IV. eranskina aurkeztu beharko da, honako hauek jasotzen dituena:

Adicionalmente, deberá presentarse el Anexo IV, el cual incluye:

a) SPKLren 159.4.c) artikuluan aurreikusitako edukia duen erantzukizunpeko adierazpena.

a) Declaración responsable con el contenido previsto en el artículo 159.4.c) de la LCSP.

b) Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Bi enpresa edo gehiago aldi baterako elkarte gisa aurkezten badira lizitazio batera, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, honako hauek adierazita: sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, enpresa bakoitzaren parte-hartzea, eta adjudikaziodun izanez gero aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela (SPKLren 69 eta APKLEOren 24). Elkarteko enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute agiri hori. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honen II. eranskinean, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromiso-eredua jasotzen da.

b) Compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresas, en su caso. Cuando dos o más empresas acudan a una licitación constituyendo una unión temporal, deberán aportar un documento privado indicando los nombres y circunstancias de las empresas que lo suscriban, la participación de cada una de ellas, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal, caso de resultar adjudicatarias (arts. 69 de la LCSP y 24 del RGLCAP). El citado documento deberá estar firmado por quienes tengan la representación de cada una de las empresas componentes de la Unión. En estos casos, cada una de las empresas deberá presentar su declaración responsable. En el Anexo II de este pliego se incorpora el modelo de compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresas.

c) Eskaintza egitean, indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak kontuan hartu izanaren erantzukizunpeko berariazko adierazpena, arlo hauetan: fiskalitatea, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra.

c) Declaración expresa responsable de haber tenido en cuenta en la elaboración de su oferta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción sociolaboral de las personas con discapacidad, y la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad.

d) Kaudimen-baldintzak zehazteari buruzko adierazpena ((SPKLren 76. artikulua).

d) Declaración sobre la concreción de las condiciones de solvencia (art. 76 de la LCSP).

e) Lizitatzaileak zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duela adierazten duen adierazpena. Ezaugarrien koadroko 15. apartatuaren arabera, adjudikaziodunak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren kontura, adierazi beharko du zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusita duten ala ez, eta adierazi beharko du zer enpresa-izen edo -profil duten, kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.

e) Declaración relativa a que la licitadora tenga previsto subcontratar los servidores o los servicios asociados a los mismos. Cuando de acuerdo al apartado 15 del cuadro de características, la adjudicataria vaya a tratar datos personales por cuenta del responsable del tratamiento, deberá indicar si tienen previsto subcontratar los servidores o los servicios asociados a los mismos, el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de las subcontratistas a las que vaya a encomendar su realización.

f) Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazten duen berariazko erantzukizunpeko adierazpena, adjudikaziodun izanez gero, eta, era berean, bere gain hartzen du kontratua adjudikatu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia emateko betebeharra.

f) Declaración expresa responsable indicando el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y las trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarias, asumiendo así mismo, la obligación de facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

g) Administrazio publiko kontratatzaileari informazioa lagatzeko baimena, baldin eta ordezkatutako enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen badu.

g) Autorización sobre la cesión a la Administración Pública contratante de la información que acredite que la empresa representada cumple con sus obligaciones tributarias y con las obligaciones de la Seguridad Social.

h) Espainiako jurisdikzioaren eta auzitegien mende egoteari buruzko adierazpena (atzerriko enpresen kasuan), aplikatu beharreko atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

h) Declaración (tratándose de empresas extranjeras) de sometimiento a la jurisdicción y tribunales españoles, renunciando al fuero jurisdiccional extranjero que resulte de aplicación.

i) Enpresa lizitatzaileak bere enpresa-taldeari buruz eta talde bereko sozietate guztiei buruz berariaz egindako erantzukizunpeko adierazpena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera. Enpresa-talde bateko kide ez bada, horren adierazpena egingo da.

i) Declaración expresa responsable de la empresa licitadora relativa al grupo empresarial al que pertenece y comprensiva de todas las sociedades pertenecientes a un mismo grupo, en los términos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio. En caso de no pertenecer a ningún grupo empresarial,

la declaración se realizará en este sentido.

j) Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialen adierazpena. Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala badagokio, beren ustez zer dokumentu administratibo eta tekniko eta datu diren konfidentzialak. Egoera hori (gaininprimatuta, marjinan edo beste edozein modutan) hala adierazitako dokumentuan bertan jaso beharko da. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta dokumentu eta datu horiek hirugarren pertsonei edo erakundeei zabaltzea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Adierazpen hori betetzen ez bada, ulertuko da dokumentu edo datu batek ere ez duela izaera hori.

j) Declaración de los documentos y datos de las licitadoras de carácter confidencial. Las empresas licitadoras tendrán que indicar, si es el caso, qué documentos administrativos y técnicos y datos presentados son, a su parecer, constitutivos de ser considerados confidenciales. Esta circunstancia deberá reflejarse (sobreimpresa, al margen o de cualquier otra forma) en el propio documento señalado como tal. Los documentos y datos presentados por las empresas licitadoras pueden ser considerados de carácter confidencial cuando su divulgación a terceras personas o entidades pueda ser contraria a sus intereses comerciales legítimos o perjudicar la competencia leal entre empresas. De no cumplimentarse esta declaración se presumirá que ningún documento o dato posee dicho carácter.

3.- Kontratazio-organoak edo kontratazio mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango du agiri bidez justifika dadila lizitatzaileek erantzukizunez aitortu duten baldintzak betetzen dituztela.

3.- El órgano de contratación o la mesa de contratación podrá, en cualquier momento, solicitar la justificación documental del cumplimiento de las condiciones sobre las que las licitadoras hubieran declarado responsablemente su cumplimiento.

Lizitatzaileak behar besteko epean aurkeztu beharko du eskatutako dokumentazioa, gehienez ere bost egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela eta prozeduratik kanpo geratuko dela ulertuko da.

La licitadora deberá presentar la documentación requerida en un plazo suficiente que no podrá ser superior a cinco días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta y será excluida del procedimiento.

4.- Proposamenen batek lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua funtsean aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena egiten badu, edo enpresa lizitatzaileak proposamen hori bideraezin bihurtzen duen akatsa edo funsgabetasuna

4.- Si alguna proposición excediese del presupuesto base de licitación, variara sustancialmente el modelo establecido, o comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte de la empresa licitadora de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable,

duela onartzen badu, baztertu egingo da, ebazpen arrazoitu baten bidez. Aitzitik, ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez aipatzea, batek edo besteak bere zentzua aldatzen ez badu, ez da nahikoa arrazoi izango proposamena baztertzeko.

será desechada, en resolución motivada. Por el contrario, el cambio u omisión de algunas palabras del modelo, con tal que lo uno o la otra no altere su sentido, no será causa bastante para el rechazo de la proposición.

5.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Era berean, ezin izango du proposamenik izenpetu beste enpresa batzuekin aldi baterako enpresa-elkarte gisa agertuta, banaka agertu bada, ez eta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ere. Printzipio hori urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsiko dira.

5.- Cada licitadora no podrá presentar más de una proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna proposición en unión temporal con otras empresas si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una unión temporal. La contravención de este principio dará lugar a la desestimación de todas las ofertas presentadas simultáneamente.

6.- Proposamena aldi baterako enpresa-elkarte batek egiten badu, elkartea osatzen duten guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari baten bitartez.

6.- Cuando la propuesta se formule por una unión temporal de empresas, todas las que la componen habrán de firmar la propuesta directamente o mediante representante.

7.- Ezaugarrien taulako 12. atalak aldaerak aurkezteko aukera ematen duenean, oinarriari dagokion eskaintza ekonomikoaz gain, aldaera bakoitzeko eskaintza ekonomiko bat ere sartu ahal izango da artxibo horretan.

7.- Cuando el apartado 12 del cuadro de características autorice la presentación de variantes, además de la oferta económica referida a la base, este archivo podrá incluir una oferta económica por cada variante.

Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa baldintza-agiri honen III. eranskineko ereduaren arabera egingo da, eta apartatu horretan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

La oferta económica correspondiente a cada variante se formulará, conforme al modelo que figura en el Anexo III de este pliego, e incluirá los conceptos y condiciones señalados en ese apartado.

17.- LIZITATZAILEENTZAKO INFORMAZIOA

17.- INFORMACIÓN A LAS LICITADORAS

1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 138.3 artikuluan aipatzen den informazio gehigarria edo osagarria eman behar denean, administrazio kontratatzaileak eskaintzak aurkezteko ezarritako muga-eguna baino sei egun natural lehenago eman beharko du beranduenez, betiere eskaera data hori baino hamabi egun natural lehenago eskatzen bada. Eskaera hori lizitazio-iragarkian eta

1.- Cuando sea preciso proporcionar la información adicional o complementaria a que se refiere el artículo 138.3 de la LCSP, la Administración contratante deberá facilitarla, a más tardar seis días naturales antes de la fecha límite fijada para la presentación de ofertas, siempre que la petición se presente con una antelación mínima de doce días naturales respecto de aquella fecha. Dicha

ezaugarrien taulako 1. apartatuan adierazitako helbide elektronikoan egingo da.

solicitud se efectuará a la dirección de correo electrónico previsto en el anuncio de licitación y en el apartado 1 del cuadro de características.

2.- Argibideak kontratatzailearen profilean argitaratzen badira, erantzunak lotesleak izango dira.

2.- En los casos en que las aclaraciones se hagan públicas en el correspondiente perfil de contratante, las respuestas tendrán carácter vinculante.

18.- ALDAERAK ONARTZEA

18.- ADMISIBILIDAD DE VARIANTES

1.- Aldaerak onartzen badira, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak kontratuaren objektuari dagokionez egokitzat jotzen dituen irtenbide guztiak jaso ahal izango ditu, preskripzio tekniko partikularren agirian ezarritako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin, ezaugarrien taulako 12. apartatuan laburtzen direnak. Aldaerak ezaugarrien taulako atal honetan bertan ezarritako moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditu.

1.- En el supuesto de admisión de variantes, la única proposición que presente cada licitadora podrá comprender cuantas soluciones distintas considere oportuno ofrecer en relación con el objeto del contrato, con los requisitos, modalidades y características técnicas fijadas en el pliego de prescripciones técnicas particulares, sintetizadas en el apartado 12 del cuadro de características. Las variantes se presentarán en la forma establecida en este mismo apartado del cuadro de características y no podrán superar el presupuesto base de licitación del contrato.

2.- Nolanahi ere, enpresa lizitatzaileek behin betiko onartutako proiektuari buruzko proposamen bat egin beharko dute, prestazioa gauzatzeko epe batekin eta ezaugarri-taulan jasotako prezio berdinarekin edo txikiagoarekin. Ezaugarriek bat etorri beharko dute aurkezten den lan-programan jasotakoekin.

2.- Será obligatoria en todo caso para las empresas licitadoras la formulación de una propuesta referida exclusiva y literalmente al proyecto aprobado definitivamente, y con un plazo de ejecución de la prestación y un precio, igual o menor en ambos casos a los recogidos en el cuadro de características, que deberán coincidir exactamente con los reflejados en el programa de trabajo que presente.

19.- PROPOSAMENAK AURKEZTEAREN ONDORIOAK

19.- EFECTOS DE LA PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

1.- Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako eta preskripzio teknikoen agiriko klausulak, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta kontratazio-mahaiari eta -organoari baimena ematen diela Sektore Publikoko Lizitatzaileen

1.- La presentación de proposiciones presupone por parte de la empresa licitadora la aceptación incondicional de las cláusulas de este pliego y del pliego de prescripciones técnicas sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos

eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea.

Baldintza-agiriak ez onartzeak eskaintza ez onartzea dakar.

El no sometimiento a los pliegos implica necesariamente el rechazo de la oferta.

2.- Lizitatzaileek ezin izango dute beren proposamena erretiratu hamabost egun naturaleko epean, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua adjudikatzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu direnean, SPKLren 158.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Epe hori hamabost egun baliodunez luzatuko da, SPKLren 149. artikuluan, eskaintza nabarmenki baxuei buruzkoan, aipatzen diren izapideei jarraitu behar zaienean.

2.- Las licitadoras no podrán retirar su proposición durante el plazo de quince días naturales, a contar desde la apertura de las proposiciones, cuando el único criterio para seleccionar a la adjudicataria haya sido el precio, o durante el plazo de dos meses cuando para la adjudicación del contrato se hayan tenido en cuenta otros criterios, conforme a lo previsto en el artículo 158.2 de la LCSP. Dicho plazo quedará ampliado en quince días hábiles cuando sea necesario seguir los trámites a que se refiere el artículo 149 de la LCSP, relativo a las ofertas anormalmente bajas.

3.- Proposamen bat arrazoirik gabe kentzen bada, lizitatzaileak ezingo du administrazio publikoekin kontraturik egin, SPKLren 71.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- La retirada indebida de una proposición será causa que impedirá a la licitadora contratar con las Administraciones Públicas de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 71.2 de la LCSP.

20.- KONTRATAZIO MAHAIA

20.- MESA DE CONTRATACIÓN

1.- Kontratazio-mahaiak izango du eskaintzak baloratzeko eskumena, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoaren arabera jardungo du.

1.- La mesa de contratación será el órgano técnico competente para efectuar la valoración de las ofertas y actuará conforme a lo previsto en el artículo 326 de la LCSP, y de acuerdo con los artículos 21 y 22 del Real Decreto 817/2009, 8 de mayo.

2.- Ezaugarri-taulako 33. atalean jasotzen da osaera, eta kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko da, lizitazio-iragarkiarekin batera, edo, bestela, osatu aurretik beti, profil horretako berariazko iragarki baten bidez.

2.- Su composición se recoge en el apartado 33 del cuadro de características y se publicará a través del perfil de contratante, con el anuncio de licitación o, a través de un anuncio específico en el citado perfil.

3.- Justifikatutako edozein arrazoirengatik

3.- En caso de vacante, enfermedad o

lanpostu hutsa, gaixotasuna edo absentzia gertatuz gero, ordezkapen-erregimen hau ezartzen da kontratazio-mahaiko kideentzat:

- Lehendakaria: titularra bokalek ordezkatuko dute, plegu honen ezaugarri-koadroan edo, hala badagokio, kontratatzailearen profilean adierazitako hurrenkeran.

- Bokalak: titularrak dauden zerbitzu edo kudeaketa-unitateetara atxikitako funtzionarioek ordezkatuko dituzte bokalak, oro har. Azaldutako moduan ordezkatzerik ez badago, saileko kudeaketa-zerbitzuei atxikitako funtzionarioek ordezkatuko dituzte bokalak, mahaiko lehendakariak izendatuta.

- Kontu-hartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuari atxikitako bokala zerbitzu horretako funtzionario batek ordezkatuko du.

- Idazkaria: ordezkapena idazkaritza-sailari atxikitako funtzionario batek egingo du.

ausencia por cualquier causa justificada, se establece el siguiente régimen de suplencias para los miembros de la mesa de contratación:

- Presidencia: su titularidad será suplida por los o las vocales en el mismo orden en que aparecen señalados en el cuadro de características del presente pliego o, en su caso, en el perfil de contratante.
- Vocales: los y las vocales, con carácter general, serán suplidas por el personal funcionario adscrito a los distintos servicios o unidades de gestión donde se hallen encuadradas las personas titulares. De no resultar posible la suplencia en la forma descrita, los y las vocales serán suplidas por el personal funcionario adscrito a los distintos servicios de gestión del departamento, designado por quien ostente la presidencia de la mesa.
- El o la vocal adscrita al servicio de Intervención y Auditoría, será sustituida por un funcionario o funcionaria de dicho servicio.
- Secretaría: la suplencia será ejercida por un funcionario o funcionaria adscrita al departamento de Secretaría.

21.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

21.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea

1.- Artxibo hau aurkeztea nahitaezkoa bada, kontratazio-mahaiak ireki egingo ditu, eta kontratazio-organoaren zerbitzu teknikoek baloratuko dituzte proposamenak, ezaugarrien taulako 19. apartatuan adierazitako irizpideen arabera.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aipatzen den balorazioak BI zenbakiko artxibo

21.- APERTURA Y EXAMEN DE LAS PROPOSICIONES

21.1.- Apertura de los archivos electrónicos nº UNO

1.- En el caso de que su presentación fuese obligatoria, la mesa de contratación procederá a su apertura, y la valoración de las proposiciones se hará por los servicios técnicos del órgano de contratación con arreglo a los criterios expresados en el apartado 19 del cuadro de características.

En todo caso, la valoración a la que se refiere el párrafo anterior deberá estar efectuada con

elektronikoa ireki baino lehen eginda egon beharko du.

2.- Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BAT zenbakiko artxibo elektronikoetan formulak aplikatuz ebaluatu beharreko informazioa sartzen dutenak (BI zenbakiko artxibo elektronikoa).

21.2.- BI zenbakidun artxibo elektronikoa irekitzea eta aztertzea

1.- BI zenbakidun artxibo elektronikoak jendaurrean irekiko dira.

2.- Balio-judizioen bidez ebaluatzen diren irizpideak badaude, egintza honetan jakinaraziko da emaitza.

3.- Ondoren, kontratazio-mahaiak onartutako lizitatzaileen BI zenbakidun artxibo elektronikoa irekiko du, "ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA" izenekoa, eta eskaintzak irakurriko ditu.

4.- Artxibo elektroniko horietan jasotako dokumentazioa ezaugarri-taulako 19. atalean adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da.

5.- Nolanahi ere, irizpide horien ebaluazioa BAT artxibo elektronikoetako dokumentazioa baloratu ondoren egingo da beti.

21.4.- Kontratazio-mahaiaren aktak

Aurreko apartatuen arabera egindako guztia dagozkion aktetan jasoko da. Akta horietan, prozeduraren emaitza eta gorabeherak jasoko dira, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. Aurrekoak ez du eragotziko

anterioridad al acto de apertura del archivo electrónico nº DOS.

2.- Se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que no cumplan las condiciones técnicas exigidas y las que incorporen en los archivos electrónicos nº UNO información que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas (Archivo electrónico nº DOS).

21.2.- Apertura y examen de archivo electrónico nº DOS

1.- La apertura de los archivos electrónicos nº DOS se hará en acto público.

2.- En el caso de que existan criterios objeto de evaluación mediante juicios de valor se dará a conocer en este acto el resultado de la misma.

3.- Seguidamente, la mesa de contratación procederá a la apertura de los archivos electrónicos nº DOS de las licitadoras admitidas, denominados “OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS”, dando lectura a las ofertas.

4.- La documentación contenida en estos archivos electrónicos, será evaluada conforme a los criterios expresados en el apartado 19 del cuadro de características.

5.- En todo caso, la evaluación de estos criterios será siempre posterior a la valoración de la documentación contenida en los archivos electrónicos nº UNO.

21.4.- Actas de la mesa de contratación

De todo lo actuado conforme a los apartados anteriores, se dejará constancia en las actas correspondientes, en las que se reflejarán el resultado del procedimiento y sus incidencias, las cuales se publicarán en el perfil de

dagokien lizitatzaileei jakinarazpena edo komunikazioa egitea, dagokion kasuetan.

contratante. Todo ello, sin perjuicio de la necesaria comunicación o notificación, según proceda, a las licitadoras afectadas.

22.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1.- Baloratu beharreko irizpideak, bai eta kontratua esleitzeko haztapena ere, oinarrizko eskaintzari zein aldaerei aplika dakizkiekeenak, ezaugarrien taulako 19. atalean ezarritakoak izango dira.

2.- Testu idatzien paperaren tamainari, marjinei, letra-motari eta lerroarteari dagokienez ezaugarri-taulako 19. atalean adierazitako ezaugarri formalak betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei eskatuko zaie beren eskaintza formalki zuzentzeko, eskaintzaren eduki materiala aldatu gabe. Eduki hori aldatzen bada, berehala baztertuko da prozeduratik. Errekerimendua egin ondoren, informaltasunak jarraitzen badu, proposamenak ez dira baloratuko dagokion esleipen-irizpideari dagokionez. Ez-betetze horrek ez du esan nahi zuzenean esleipen-prozeduratik kanpo geratuko direnik.

3.- Ezaugarri formal horiek bete eta 19. paragrafoan ezarritako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak ez dira inola ere prozeduratik kanpo utziko. Adierazitako gehieneko luzera gainditzen badu, baimendutako gehieneko orrialde kopururaino baloratuko da edukia.

4.- Ezaugarrien taulako 19. atalak hala ezartzen duenean, gutxieneko muga bat ezarri ahal izango da balio-judizioen bidez ebalua daitezkeen irizpideen puntuazioan. Gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

22.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

1.- Los criterios a valorar, así como su ponderación para la adjudicación del contrato, aplicables tanto a la oferta base como a las variantes en su caso, serán los establecidos en el apartado 19 del cuadro de características.

2.- Las empresas que presenten ofertas que no cumplan las características formales indicadas en el apartado 19 del cuadro de características en cuanto al tamaño del papel, márgenes, tipo de letra e interlineado de los textos escritos serán requeridas para que corrijan formalmente su oferta, sin alterar el contenido material de la misma. La alteración de dicho contenido supondrá la inmediata exclusión del procedimiento. Realizado el requerimiento, si persistiera la informalidad, las proposiciones no serán valoradas respecto del criterio de adjudicación de que se trate sin que, en ningún caso, dicha inobservancia suponga directamente su exclusión del procedimiento de adjudicación.

3.- Aquellas proposiciones que, cumpliendo tales características formales, excedieran la extensión máxima establecida en el apartado 19 no serán, en ningún caso, excluidas del procedimiento. Caso de exceder la extensión máxima señalada se valorará su contenido hasta el número máximo de páginas permitido.

4.- Cuando así lo establezca el apartado 19 del cuadro de características, se podrá establecer un límite mínimo en la puntuación de los criterios evaluables mediante juicios de valor. Aquellas ofertas que no obtengan la puntuación mínima serán excluidas de la licitación.

23.- ESKAINTZEN BALORAZIOA

1.- Bere eginkizunak betetzeko, mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Kontratazio-mahaiak baztertu egingo ditu eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak.

24.- ESKAINTZAK ARGITZEA

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzei buruzko argibideak edo horien idazketan akats material nabarmenak zuzentzea eskatu ahal izango die lizitatzaileei, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen bada eta, kasu horretan, eskaintzetako baldintzak ezin izango dira inolaz aldatu.

25.- BALIO ANORMALKI BAXUAK DITUZTEN ESKAINTZAK

1.- Eskaintza anormalki baxutzat hartuko dira honako kasu hauetan daudenak:

1. Lizitatzaile bakarra aurkeztuz gero, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino ehuneko 25 txikiagoa denean.

2. Bi lizitatzaile aurkezten direnean, beste eskaintza baino ehuneko 20 txikiagoa denean.
